

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Alkatearen 2021eko otsailaren 5eko dekretua, eskumenak eskuordetzeari buruzko 2019ko ekainaren 21eko dekretua bigarrenez aldatzeko**

2019ko ekainaren 21ean, zenbait eskumen udalbatzako zinegotzien gain uzteko dekretua eman zuen alkateak. Gobernu-eskuordetzeak nahiz eskuordetze bereziak jaso ziren dekretu horretan.

Zehazki, besteak beste, alkateorde eta Tokiko Gobernu Batzarreko kide Ana Oregi Bastarrika zinegotziaren esku utzi ziren Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sailari dagozkion zereginak, salbu eta Nekazaritza Eremuaren Zerbitzuaren eta Ingurumen Plangintza eta Kudeaketa Zerbitzuaren barne zuzendaritza eta kudeaketa. Azken zerbitzu hori, Ingurumen Plangintza eta Kudeaketa Zerbitzua, César Fernández de Landaren esku utzi zen, eskuordetze berezia medio.

Gaur egun, komenigarritzat jotzen da Fernández de Landa jaunak, eskuordetze berezi horretaz gain, bere gain hartzea Plangintza eta Proiektu Zerbitzuaren barne zuzendaritza eta kudeaketa, eskuordetze berezi berri bat dela medio, eta alkatearen 2019eko ekainaren 21eko dekretua aldatzera behartzen du horrek.

Kontuan izanik Araubide Juridikoaren Oinarrien Legearen 124. artikuluan finkatuta daudela alkatearen zereginak, eta horietako zenbait —dekretu bidez— Tokiko Gobernu Batzarreko kideei eskuordetzeko ahalmena aitortzen zaiola.

Kontuan izanik Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124.4, a, f, g, 124.5 eta 127.1. e, g, h eta I artikulua, baita Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 12., 40. eta 41. artikulua ere.

Ikusirik Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak —Menpeko Toki Erakundearen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Araudia onesten du— 43. artikuluan ezarritakoa,

Xedatu dut

Lehen xedapena. Eskumenak eskuordetzeari buruzko alkatearen 2019ko ekainaren 21eko dekretuaren hirugarren artikulua aldatzea, honela idatzita geratuko baita:

“Hirugarrena. Alkateorde eta Tokiko Gobernu Batzarreko kide Ana Oregi Bastarrika zinegotziaren esku uztea lehen atalean adierazitako zereginak, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sailari dagokionez, salbu eta Nekazaritza Eremuaren Zerbitzuaren, Ingurumen Plangintza eta Kudeaketa Zerbitzuaren eta Plangintza eta Proiektu Zerbitzuaren barne zuzendaritza eta kudeaketa, horien eskuordetze berezia dela eta.”

Bigarren xedapena. Alkatearen 2019ko ekainaren 21eko dekretuaren hamargarren artikuluko hirugarren paragrafoa —eskuordetze bereziak— aldatzea, honela idatzita geratuko baita:

“- César Fernández de Landa: Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Ingurumen Plangintza eta Kudeaketa Zerbitzua eta Plangintza eta Proiektu Zerbitzua.”

Azken xedapena. Datoren egunean jarriko da indarrean dekretu hau, eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn eta Udalaren webgunean zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 5ean

*Alkatea*

*GORKA URTARAN AGIRRE*